

Ordizian, **2010eko urriaren 1ean**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz	PNV taldea
Belén Maiza Urrestarazu andrea	EA Taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta. andrea


**KONTUHARTZAILEA:**

José Luis Aranburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**



## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2010eko uztailaren 23an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.  
..... **3.orr.**
- 2.- Haurtzaro, Nerabezaro eta Gaztediaren Sustapen Plana.  
..... **4.orr.**
- 3.- Alkatetzak onartutako kreditu aldaketen kontu ematea  
..... **9.orr.**
- 4.- Kulturako Udal Aholku Batzordeko araudiaren hasierako onarpena  
..... **12.orr.**
- 5.- Langile Publikoen lansarien murrizketen egokitzapena.  
..... **14.orr.**

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK**

- 6.- 2010eko maiatzaren 24ko osoko bilkuran onartutako Oiangurengo Kontzesioa berreskuratzeko hitzarmena indargabetzea.  
..... **19.orr.**

### **GORABEHERAK**

### **GALDE-ESKEAK**


- Gazte informatzailea Gaztediarekin lotutako funtzioak egin dituela.
  - Pakistaneri uholdeak izan zirela eta diru-laguntza esakera.
  - "Oiangu Bizirik"ek ordaindu behar dituen epaiketa gastuak
  - Gobernu Batzordera joateko eskaria bozka eskubiderik gabe.
- ..... **21.orr.**

### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA ORDUA: 8,00**

**BUKAERA ORDUA: 11,15**





Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman da.

## **1.- 2010eko uztailaren 23an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea**

### Proposamena

#### **2010eko uztailaren 23an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Gonzalez jaunak

"Langile Publikoen lansarien murrizketen" 5.- puntuan aipatzen du, gaztelarazko aktaren 14. orrian, proposamenaren aurka bozkatzeko arrazoietan, "dirudunak ez daude gerrikoa estutzeko moduan" jaso den tokian, "dirudunak dira gerrikoa estutu behar dutenak" esan zuela edo esan nahi zuela.

Zuzenketa egin da, euskara eta gaztelaniazko aktetan.

#### Dubreuil jaunak

2. puntuan aipatzen du, "Heldu zerbitzua kentzean Ezker Batua- Aralarrek aurkeztutako mozioan, gaztelaniazko 6. orrialdean, ez zuela esan Gizarte Ongizateko Lege bat onartzeko beharra zegoela, baizik eta "EBk Legebiltzarrean onartu zuen Gizarte Ongizateko Legebat dagoela, eta bertan ez dela etorkinei buruzko ezer zehatzik aipatzen".

Hurrengo interbentzioan, Gonzalez jaunaren ondoren, "laguntza" ziurtatua dagoela esan zuen. "Etorkinek sarrerak bermatzeko baliabideak dituzte, beraz, arreta ez jasotzearena, ez da egia".


Azkenik, Dubreuil jaunak aipatzen du, HELDU enpresa EB/ARALAR-eko ordezkariaren batek sortu duela esaten duen interbentzioa ez duela oso ondo gogoratzen.

Grabaketa ondo entzuteko eskatu dio idazkariari.

Dubreuil jaunak eskatutako zuzenketak egin dira gaztelaniazko eta euskarazko aktetan.

#### Gonzalez jaunak

6.- puntuan, "2010erako Alkate, Zinegotzi eta Talde politikoen lansarien murrizketak egokitzea" puntuan, berak funtzionarioentzat aurreikusitako jaitsierarekin bateratzeko proposamena iraileko osoko bilkurarako atzeratzea proposatu bazuen ere, eta Asenjo jaunak bere proposamena babestu zuen baita ere, proposamena atzeratzeko erabakia hartu zela uste du, aktan azaltzen den bezala, eta Alkate jaunak eta



Dubreuil jaunak erantzun diote proposamena udalbatzako kide guztien aldeko botoarekin onartu zela, hau da, aho batez, beraz, akta zuzendu beharko litzatekeela uste du. .

### Proposamenaren aldeko bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV 1, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (Iturriotz Andrea bertan egon ez zenez abstenitu egiten da).

### Maiza andreak

Osoko bilkurako deialdiak nola jasotzen dituen, hortaz kexatu da. Ordutegiak, Gai zerrendak, etab.

**Beraz Alkateak aipatutako aldaketen proposamena onartuta.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

## **2.-Haurren Nerabeen eta Gazteen Arloa Sustatzeko Plana**

### Propuesta

2010eko urte hasieran Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin Ordiziako udalerriko Haurtzaro, Nerabezaro eta Gazteriako Sustapen sistema Garate ahal izateko lanak egiten hasi zen.


Lankidetzaren helburua epe luzera berezko dinamika izango duen udaleko unitate bat eratzea da, sustapen-arlo hori garatzeko.

Hori ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposamena diseinatzeko diagnostiko bat burutu du, 2010eko irailaren 22ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordeak proposamenaren aldeko irizpena eman du, eta orain Osoko Bilkurak onartzea proposatzen da.

### AKORDIO PROIEKTUA

- **Ordiziako udalaren Haurren, Nerabeen eta Gazteen Arloa Sustatzeko Plana onartzea.**
- **Alkate jaunari erabaki honetik eratorritako beharrezko agiriak sinatzeko eskumena ematea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila



## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Alkate jaunak:

Aldundiarekin, Kirol teknikariarekin eta Gaztedia saileko zinegotziarekin batera egin den lana laburki azaldu du, eta aipatutako lanean hainbat helburu finkatu dira.

Diagnosi bat egiten hasi dira, hortik hainbat ondorio atera dituzte gainera 5 helbururekin.

Berez, ez da Gaztedia Plan bat, azaldu du Alkateak, baina Gaztedia Plana definitu ahal izateko pausu batzuk zehazten dituen dokumentu bat da, 2010/2011 urteetarako akzio plan bat.

### Leunda jaunak

Adierazi du egiazki ez dela Gaztedia Plan bat baina ezta Sustapen plan bat ere, sistemaren proposamen bat onartuko litzateke bere ustez. Errealitatean marko bat da, baina hortik Plan bat izatera tarte handia dagoela uste du.

Udalaren eta Aldundiaren arteko hitzarmen bat bezala ikusten du, Gaztedia Planerako konpromisoen hitzarmen gisa. Arretarako sistema bat.

Aldundiak Kirol teknikariari ipini dizkion funtzioak nola ezarri dizkion ere, ez dago horrekin ados.

Orain arte, gaztedia gaiaren erreferente gisa Gazte informatzailea egon da urte askotan zehar, eta agian bera izan daiteke aipatutako posturako egokiena. Gaia aztertu behar dela uste du eta eduki garrantzitsuagoko funtzio gehiago eman behar zaizkiola. Gazte Informatzaileak une honetan lanaldiaren %80a duela gogorarazi du.


Legealdiren hasieratik, ordezkatzeko duen taldeak Gaztedia teknikari baten beharra ikusita teknikari bat kontratatzeke eskaria egin du, horretarako partida dagoela uste du, aurrean 43.000 € -ko aurrekontua egin da eta ez daki zertan erabili behar duten diru hori

Beste partida bat ere badago, eta diru hori nola eta zertan gastatu behar duten jakin nahi du

### Alkate jaunak

Hemendik aurrera helburua Plan hori egitea dela erantzun dio. Orain arte Aldundiarekin elkarlanean oraingo egoeraren ikerketa edo diagnosi bat besterik ez da egin.

Kirol Tenikariari Majori Kirodegia S.L...-ko kudeaketa lanak kendu zaizkionez denbora gehiago duela uste du eta Gaztedia Plana kudeatu dezakeen pertsona izan daitekeela uste du, gainera une honetan kiroldegiko kudeaketa osoaz kontratatutako enpresa bat arduratzen dela kontuan hartu behar dela uste du .



Gaztedia sailean egiten zen orain arteko lana Kultura Teknikariak koordinatzen zuen eta orain sail horretako zinegotzia da arduraduna.

### Dubreuil jaunak

Proposamenaren alde bozkatuko duela esan du baina, ez zaio nahikoa eta behar bezalako iruditzen, Gaztediako Plan Integrala osatzeko konpromisoa Gobernu Taldearena delako eta berretsi beharreko konpromisoa delako.

Horrekin batera ez ditu Gaztedia Sailaren Plan Estrategikoak zehazten dituen pausuak betetzen.

Sistemari dagokionez martxan hasi dela dirudi eta Gaztedia Plan Integral baterantz doan bidea hasi dela dirudi . Gaiaren jarraipena egingo dute.

Lanak burutzeko Aldundiak eskatutako teknikari dagokionez, bere ustez, udaleko plantila organikoan eta lanpostu zerrendan finkatu behar den lanpostu bat da eta beharrezkoak diren baliabideez hornitu behar da lanpostua, funtzioak zuzen bate daitezen .

Gainera, baliabide guztiak nola berrantolatuko diren galdetu du Gaztelekuak Aldundiko diru-laguntzak jasotzen ditu eta Gazte Informatzaileak Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak. Hau guztia nola geratuko den jakin nahi du.

Legebiltzarrean lege bat prestatzen ari direla uste du ondoren onartzeko eta gauza guztiak argi eduki nahi lituzke etorkizunean ahalik eta laguntza gehienak eskatu ahal izateko.

Hala ere, taldearen botoa proposamenaren aldekoa izango da.


### Alkate jauna

Dubreuil jaunak adierazten duena arraroa iruditzen zaiola esan du, gobernu akordioa Gazte Planean aurrera egitea baitzen. Onarpenerako proposatzen den dokumentu honekin funtsezko pausua eman dela iruditzen zaio, helburua lortzeko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak lortzeko aukera ematen baitu.

Gobernu taldeak zehaztutako helburua beteko dutela dute du eta teknikariaren gaia geratzen da aztertzeko.

### Dubreuil jaunak.

Gobernu Hitzarmena lerro estrategikoez ari dela uste du eta honek etorkizunean Gaztedia Plan Integralerako bide ematen badu onartuko du, baina, ez du konfidantzarik eta horrela, plan integrala bere horretan geratuko dela uste du. . Behin – behineko plan bat dela uste du eta plan integrala landu egin behar da ez baita ondoak bezala agertzen.



### Asenjo jaunak.

Politikan edukiak bezain garrantzitsuak dira formak. Dokumentua Foru Aldundiko transfugek egin dute, eta beraz, hauen legezotasuna zalantzan jartzen dugu, boto bakar bat ez duen alderdiak egin duela kontuan hartuta.

Gaztedia Saileko ordezkari bat dagoela esan du, gaiaren arduraduna dela, ez zen Planaren aurkezpenean egon eta ezta gaurko ohiko bilkuran ere, errespeturik ez dagoela iruditzen zaio.

Ohiko bilkuren ordutegia arazo bat baldin bada zinegotzientzako, eta ezin badute bilkuretara joan, (gaur bertan 3 zinegotzi falta dira), ordutegia aldatu beharko litzatekeela uste du.

Gaztedia Teknikari bat izatea ondo iruditzen zaio baina Zerbitzu eta Agenda XXI-eko ordezkari bezala, Agenda XXlerako ere beste teknikari bat edukitzea eskatzen du gure herriaren tamainako beste herrietan bezala.

Hala ere ona iruditzen zaio proposatu den planaren sistema.

### Alkate jaunak

Asenjo jaunari erantzun dio esanez Gaztediako ordezkariari egindako kritika ez zaiola serioa iruditzen, Udalean lan egiteko ahalegin handiak egiten dituelako eta batzuetan opor garaian eta bere lan ordutegian ere lan egiten duela.

### Asenjo jaunak

Berririo dio, ez zaiola serioa iruditzen bera ez egotea ohiko bilkura honetan.

### Leunda jaunak


Beti bezala, plana oposizioaren iritzia kontuan hartu gabe kudeatu dela uste du. Gainera, Gazte Informatzaileari honen guztiaren berri eman zaion eta bere iritzia kontuan hartu den jakin nahi du. Lanpostu honetako funtzioak betetzen dituen pertsona Koro Ruiz izatea aztertu den jakin nahi du, kirol teknikariari proposatu baino lehenago.

Gaiari buruz berak zein ikuspegi duen galdetzea garrantzitsua iruditzen zaio.

Azken aldi honetan, bere ustez Koro Ruiz izan da erreferentzia eta gai honetan esperientzia gehiago duela uste du.

### Alkate jaunak

Adierazi du gaztedia saileko aktetan Koro Ruiz eta Miren Auzmendi agertzeak ez duela esan nahi gaztedia arloko koordinatzailea edo arduraduna denik. Gainera, Miren Auzmendi da oraingo arduraduna eta aurreko legealdian, Iñaki Hidalgo izan zen.



Kirol Teknikariak udaletxean lan egiten du, aurreko kudeaketa lanen eta kirol erakundeen kudeaketa osoaz liberatu denez, ideia ona iruditu zaio bera izatea kudeatzailea.

#### Pedro Irastorza jaunak

Langile Batzordeko ordezkari bezala, gaztedia teknikari postua sortzea ideia ona iruditzen zaio, baina Koro Ruiz lanaldiaren %80an dagoela gogorarazten du Gazte informatzaile lanpostuan eta bere ustez, lanaldia luzatu diezaiokeste Gaztediko lanpostuan erreferente izanda.

Gainera, Koro Ruizek orain dela 2 egun jakin duela jakinarazi du.

#### Alkate jaunak

Esan dio hori ez dela egia eta gaia aspaldian jakinarazi ziotela.

#### Maiza andrea

Zerotik hastea eta gaur egun txosten edo diagnostiko hau edukitzea zerbait dela adierazi du eta honek ondoren Plana zehazteko sistema bat osatzen badu ona da, orain arte egiten ziren ekintza solteak baino hobea da.

Baina, era berean tranpa bat dagoela uste du eta bertan erortzea saihestu behar dugu. Tranpa, probintzia mailako sistema batean lan egiten hasteko finantziario-bide bat sortzea da, eta ez udalerrri mailako sistema batean, eta gero hori bertan behera gelditzeko arriskua dago.

Aldundiak sortu duen Plan bat bada erne ibili behar dugula uste du, Planak udalerrikoa izan behar duelako eta gure beharretara egokitu behar duelako. Aldundiaren gidaritzaren amaitu ostean, Udalak argi eduki behar du nora joan nahi duen. Beharrezkoa eta funtsezkoa iruditzen zaio, datorren urtean esku hartu ahal izateko. Aldundiak aurrean ipinitako gozoki bat da eta batzuetan ibiltzen hasi ahal izateko beharrezkoa izaten da gozoki hori probatzea, baina gidaritzaren desagertzen denean, zer gertatuko da?

Jarraipenerako eta ekarpenak egiteko garaia dela uste du, hori Ordiziarako benetako Plan bat bihurtzeko.

#### Dubreuil jaunak

Pedro Irastorza jaunari, Langile Batzordeko ordezkariari erantzun dio esanez berari gaiari buruz nahi duenean eta nahi duena galde diezaiokeela .

Errepikatu du esanez ahalik eta azkarren jo behar dela Plan Integral baterantz eta batez ere giza baliabide egonkorrekin..


#### Leunda jaunak

Gaztedia arloko aurrekontua zertan gastatuko den galdetu dio berriro.

#### Alkate jaunak

Hori guztia orain erabakitzen ari direla erantzun dio





### Leunda jaunak

Bere taldea kontuan izaten ez duten arren, diru hori Gazte informatzaileari lanaldia %100era luzatzeko eskaera egin dute eta luzatzen zaion %20a, sustapen sistemarako erabili dezala.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (EAJ/PNV 2 EA 2, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 2 (IU/EB-ARALAR 2)

### Leunda jaunak

Beraiei informaziorik ematen ez zaielako egoera kritikatu du eta hau diktadura bat dela dio.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:


### **3.- Alkateak onartutako kredituen aldaketen kontu ematea**

Gipuzkoako Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua zehazten du beharrezkoa dela Aurrekontuen aldaketen berri ematea osoko bilkuran.

Apirileko osoko bilkuraz geroztik onartutako aldaketak honakoak dira:

#### Kreditu transferentziak

Zenbakia	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
2	324	1.911,67
3	257	1.000,00
4	459	18.000,00
5	504	3.470,72
6	505	20.771,61
7	509	2.900,00
8	574	3.545,00
9	588	1.682,00
10	611	4.661,00
11	446	8.520,10
12	589	775,75



13	605	1.130,55
14	678	1.200,00
15	681	1.350,00

#### Kreditu gehigarriak

Zenbakia	Dekretu zbkia	Zenbatekoa
7	324	2.401,07
8	334	4.463,22
9	2010-04-30eko osoko bilkura	
10	436	59.060,00
11	506	18.000,00
12	575	52.825,00
13	609	18.502,40

#### Kreditu gaitzeak

Zenbakia	Dekretu zbkia	Zenbatekoa
3	577	50.321,48
4	578	9.231,48
5	579	300,00
6	580	6.000,00
7	644	5.916,00
8	645	30.670,12
9	646	227.470,69
10	647	145.300,90
11	649	50.201,81
12	688	6.383,67
13	794	47.200,00
14	796	18.300,00
15	799	25.866,93

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu : duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


#### Alkate jaunak

Aurreko Gai Arrunten Batzordean 644 zk. duen Dekretuak hainbat zalantza sortu duela azaldu .

Hitza kontu-hartzaile jaunari eman dio, gaia argitu dezan.

#### Kontu-hartzaile jaunak

Dekretuaren edukia azaldu du. Zapertero Planak 2010erako hiru proiektu ditu:



- Frontoi txikia estaltzea.
- Jubilatuen eta Pentsionisten elkartearen II.fasea.
- Majori handitzea.

Esleipenen desfasearekin (diru-laguntzen %70aren hasierako ordainketarekin), obra batzuk amaitu ziren eta une horretan ez zuten diru-laguntzaren %100 ordaindu, bera, Udalak diferentzia hori aurreratu zuen eta gero kobratu egin zuen eta Diruzaintzako soberakina erantsi zitzaion eta gainerako %30a iritsi denean beste gauza batzuetarako erabili da..

Zapateroren Planetik jasotako finantziario guztia Planeko obretarako erabilia izan da, eta hori da garrantzitsuena, gainera bertako arauak oso zorrotzak dira eta zaila da ez betetzea.

Agian, gaia argitzeko ohar bat jarri behar zen.

#### Leunda jaunak

Kredituen igoera zertan erabili den jakin nahi du. Argi dago praktika kantxa ixteko kontzeptua, baina beste 2 kontzeptu daude, eta horiek argitu behar dira.

#### Alkate jaunak

“Oiangureneko eraikuntza berriei” dagokiela erantzun dio, hau da, esleipendun enpresatik kanpoko pertsona batzuek sortutako kalteak konpontzeko. .

Eta beste kontzeptua materialaren erosketari eta beste inbertsioei dagozkio (Majori kiroldegiak esleitutako kontratuak)

#### Leunda jaunak

Zenbatekoari dagokionez 107.000 €, nondik irten den jakin nahi du eta ea Majorik proposamen ezberdinak eskatu zituen.

#### Maiza andreak


Udalak kontzesioa berreskuratu ondoren, Oiangurenekin zer egin behar duen argi eduki behar duela uste du, eta gero, Oiangurengo egoera poliki aztertu behar dela uste du Kontuz ibili behar da. Oraingoz uste du ezin zaiola inori pasa Oiangurengo ondasuna, ez Majoriri, ez inori.

Oianguren eta berari dagozkionak Udalaren esku uztea beharrekoa dela uste du.

#### Asenjo jaunak

Oiangurengo gaian prozesu parte hartzaile bat ireki behar dela uste du. Agenda XXI-ean bada puntu bat, eta zehazki hau da, Oiangurenekin zer egin behar den eztabaidatzea.

Oiangurenen edozein diru kopuru xahutzea neurri ausartegia iruditzen zaio.



### Leunda jaunak

Alkate jaunak argi duela uste du eta praktika kantxa eduki nahi duela uste du, egurrezko posteak, kreosotarekin tratatutakoak, Udalak aldatu dituelako eta dirutza bat gaztatu delako horretan.

### Asenjo jaunak

Gainera eginda dagoenaz gain gauza gehiago egin daitezkeela uste du eta zerbait pentsatu behar da, eta herriak parte hartu behar du.

### **Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


### **4.- Kulturako Udal Aholku Batzordearen araudiaren hasierako onarpena.**

#### Proposamena

- Ordiziako Udalak kulturaren arloan duen helburuetako bat herriko kultur jarduera garatzea eta hiritarren parte hartzea indartzea da. Horretarako, beharrezkoa da bizitza kulturala eta soziala hobetzeko antolatzen diren ekimenak babestea eta bultzatzea. Kulturaren Udal Aholku Batzordea helburu hauek lortzeko tresna eraginkorra izan daiteke, herriarentzako erabaki estrategikoak hartzekoan hiritarren parte-hartzea bultzatuz.
- Toki-erakundeei buruzko legediak, halaber, aholkuak eman eta proposamenak egiteko eskumena izango duten arloko aholku batzordeak sortzeko aukera aurreikusten du, hiritarren partaidetza bideratzeko.
- Horrekin batera, otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko artikulua zehaztuz azaltzen da xede gisa, Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituztela emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan, Batzorde nagusietan nahiz lan batzordeetan.
- Hori dela eta, dagokion araudia betetzeko, Kulturaren Udal Aholku Batzordearen bidez Ordizian kultur arloan parte hartzea bermatzeko beharrezko neurriak ipiniko dira.
- Hori guztia kontuan izanda, eta 2010eko irailaren 22ko osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA:

### **1.-Ordiziako Udaleko Kulturaren Udal Aholku Batzordeko araudiari hasierako onarpena ematea.**



**2.-Aipatutako Araudia publikoki zabaltzea iragarkia Udaleko iragarki Oholean eta GAO n ipinita, interesatuek beharrezkoak ikusten dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eta ondoren Udalak horiei erantzuna emateko.**

**3.-Erreklamaziorik ez balego, akordioa behin betikoa izango da akordio berririk egin behar izan gabe.**

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Maiza andreak

Kulturako Udal Aholku Batzordea zertan datzan azaldu du laburki.

#### Dubreuil jaunak

Bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko duela esan du eta Maiza andreari egindako lana eskertu dio.

Aholku Batzorde ugari sortzen eta eratzen ari direla uste du eta horrek herritarren parte hartzea sustatzeko orduan garrantzia duela uste du.

#### Maiza andreak

Parte hartze prozesuaren barruan "Ordizia Hiri Hezitzaile" proiektua ere badagoela gogorarazi dio.

#### Leunda jaunak

Proposamenaren alde bozkatuko duela dio baina, ez du guztiz bat egiten Batzordearen osaketarekin.

Bere garaian ere esan zuen, Udaleko talde politiko guztien ordezkari bana joaten bada Batzorde horietara Udaleko arazoak islatuko direla bertan. Ez du nahi politikari eta elkarteen batzorde misto honek politikariek landu behar duten foroa agerian uztea, hau da, ez du nahi politikarien artean dauden liskarrak Aholku batzordera eramatea. .

Bere ustez ekarpen asko egin ditzaketen kultur arloko pertsona asko egon daitezke.

Agian Udaletik dagokion teknikariak eta saileko zinegotziak joan beharko lukete. Ez du Kultura Batzordea ordezkatzetik nahi, gaur egun, Udalaren antolakuntza kontuan hartuta ez dago gainera.


#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## **5.- Langile publikoen lansariak egokitzea**

### Proposamena

#### AZALPENA


Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak aparteko hainbat neurri jasotzen ditu defizit publikoa murrizte aldera. Murrizpena Europar Batasunak herrialde kideen eta euroaren defentsan emandako erantzun bateratuaren ondorioa da, hainbat herrialdek beren defizitak zuzentzeko eta beren zorra itzultzeko duten gaitasunari buruz dauden zalantzei erantzute aldera. Horri erantzuten diote aipatu Errege Dekretuan jasotako neurriek, helburu nagusietako bat izanik urteko soldata-masa ehuneko bost murriztea.

Zehazki, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak xedatzen du nazioarteko finantza-krisian jatorria duen, eta hazkundean eta enpleguan ondorioak dituen krisi ekonomikoaren gogortasunak ezartzen duen egoera ekonomikoan premiazkoa dela herri-administrazioetako langileria-gastuei eusteko neurriak hartzea. Jarraian aipatzen du helburua dela 'urteko soldata-masa ehuneko bostean murriztea'. Xedatutakoaren arabera, murrizte hori 'nahitaez aplikatu beharko da administrazio guztietan; horrek, aurrezpen nabarmena ekarriko die Autonomia Erkidegoei eta Toki Entitateei, enplegu publikoak horietan duen garrantziari erreparatuta'.

EUDELeko Batzorde Eragileak, herri-administrazioiko langileen ordainsarien murrizketari dagokionez, 2010eko maiatzaren 27an erabaki zuen gainerako instituzioekin (foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) jardun bateratu eta koordinatua garatu behar zela, Errege Lege Dekretuaren helmena eta ondorioak zehazte aldera. Erabaki hori bete beharrez, eta instituzio bakoitzaren desberdintasunei eta ezaugarriei kalterik egin gabe, koordinazio hori izan da lan-ildo nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoan gure berezitasunak nahitaez bete beharreko Errege Lege Dekretua ezartzeari begira nolabaiteko marjinak ematen dizkigula kontuan hartuta.

Hori guztia bete beharrez, jarraian garatzen den akordioaren xedea da soldata-masa urteko % 5 murriztea, eta horren zati bat, besteak beste maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko 1.2 eta 1.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, langileen ordainsariak murriztuz lortuko da. Aipatu artikuluek Estatuaren Aurrekontu Orokorrari buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legeko 22. artikuluko hainbat atal aldatzen dituzte. Artikulu guztiak oinarritzeko dira, eta halaxe jasotzen da 8/2010 Errege Lege Dekretuko azken xedapenetako bigarrenean esplizituki jasotakoaren arabera.

Aurrekoa ezertan ukatu gabe, eta neurri hori betetzeari dagokionez, zentzuzkoa da interpretatzea, gainerako euskal instituzioek egindakoaren arabera, ordainsarien murrizketa gehikortasun irizpidea ezarrita egitea, ordainsari altuenak portzentaje handiagoan murrizte aldera. Horretarako, ordainsari-taula berria finkatu da, gainerako instituzioetan bezala, aipatu gehikortasuna kontuan hartzen duena. Gehikortasun hori bera ezar lekieke langileei, Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako



lan-baldintzak arautzen dituen akordioa (UDALHITZ) kontuan hartuta. Horretan oinarrituta, lan-baldintza berberak ezartzen dira langileentzat eta funtzionarioentzat, eta beraz, II. tituluko 64. artikuluan eta ondorengoetan esplizituki jasotzen da funtzionarioek duten ordainsari-egitura baliokidea langileentzat, ordainsari-kontzeptu berdinak dituena.

Horretatik guztitik ondorioztatzen da zentzuzkoa dela murrizketa gehikor berberak ezartzea bi kolektiboetarako.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren ondorio diren aparteko neurri horiek hartzeak Ordiziako Udalarari eskatzen dio eraginkortasunez ezartzea ahalbidetuko duten hainbat neurri hartzea, Akordio honen edukian zehaztutakoak hain zuzen ere. Ildo horretan, ezinbestekoa da, 8/2010 Errege Lege Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa (UDALHITZ) 2010eko ekainaren 1etik aurrera hein batean etetea maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua eta honako Akordioa, eta zehazki ekonomi arloko neurriak ezartzeko ezinbestekoak diren baldintzetan.

2010eko ekainaren 22an, eta, gerora, 2010eko ekainaren 30ean, EUDELEK UDALHITZeko Interpretazio, Adiskidetze eta Bitartekaritza Batzorde Parekidea deitu zuen, informazioa emateko, eta, hala bazegokion, sindikatuekin arlo honetan Errege Lege Dekretuaren ondoriozko neurriak eta irizpideak, Akordio honetan jasotakoak, negoziatzeko, eta Akordioa adierazitako baldintzetan hein batean etetea negoziatzeko. Aipatu Batzordean ez zen akordiorako aukerarik izan.

Jarduera hori bera egin da Ordiziako Udalean 2010eko uztailaren 14an. Alde sozialak denbora gehiago eskatu du akordioa sakonago aztertze aldera.

Horren guztiaren arabera proposatzen da honakoa:


### AKORDIOA

**LEHENENA.-** Ordiziako Udalarak maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legean eta aplikatzeko araudi autonomikoan oinarrituko izaeraz xedatutakoa betetzeko, beharrezko neurriak hartuko ditu, 2010. urterako bere aurrekontuetan I. Kapituluaren murrizketa izaera orokorrean ezartzea lortzeko xedez

Murrizketa hori soldata-masaren %5ekoa izango da urteko. Horrenbestez, eta kontuan hartuta neurriak 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioak dauzkala, murrizketa % 2,86an zehaztuko da 2010eko ekainetik abendura bitarteko aldirako; portzentaje hori adierazitako % 5 horren zortzi hamalauren aplikatuz lortzen da, urteko terminoetan.

**BIGARRENA.-** Arestian adierazitakoa aplikatzeko, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileek 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioetarako jaso beharrezko oinarrituko ordainsariak maiatzaren 20ko 8/2020 ED Legeko 1.2 eta 1.3 artikuluek jasotzen dituzten koadroetan agertzen direnak izango dira; aipatu artikuluek Estatuko Aurrekontu Orokorretako abenduaren 23ko 26/2009 Legeko 22. artikuluko bi eta bost atalak aldatzen dituzte.

**HIRUGARRENA.-** Soldatak murrizteko neurriak Udalean dauden ordainsari-mailen artean progresibitate-irizpideekin aplikatuko direla bermatzeko xedez, administrazioko langileek ondorengo taulan zehaztutako portzentajearen izango dute murrizketa (orientazio-taula, I ERANSKINA UDALHITZ):



MURRIZKETEN TAULA. MAIATZAREN 20ko 8/2010 ELDren EZARPENA

UDALHITZen MAILAZ GORAKO ORDAINSARIAK	2010eko ORDAINSARIAK	% murrizketa ezarpen aldian	Urteko % murrizketa baliokidea
	70.000,00 €	2,86	5,01
	65.000,00 €	2,78	4,87
UDALHITZen MAILAK	2010eko ORDAINSARIAK	% murrizketa ezarpen aldian	Urteko % murrizketa baliokidea
30	61.257,34 €	2,72	4,76
29	59.547,58 €	2,68	4,69
28	57.837,42 €	2,62	4,59
27	56.127,26 €	2,55	4,46
26	54.418,32 €	2,48	4,34
25	52.707,46 €	2,38	4,17
24	50.997,43 €	2,25	3,94
23	49.287,01 €	2,20	3,85
22	47.577,93 €	2,15	3,76
21	45.867,22 €	2,10	3,68
20	44.157,61 €	2,05	3,59
19	42.447,44 €	1,97	3,45
18	40.737,54 €	1,91	3,34
17	39.027,25 €	1,86	3,26
16	37.317,22 €	1,82	3,19
15	35.607,20 €	1,81	3,17
14	33.897,16 €	1,73	3,03
13	32.187,26 €	1,65	2,89
12	30.703,14 €	1,55	2,71
11	29.219,30 €	1,05	1,84
10	27.735,30 €	0,95	1,66
9	26.251,44 €	0,78	1,37
8	24.870,67 €	0,68	1,19
7	23.490,18 €	0,56	0,98
6	22.129,69 €	0,56	0,98
5	20.769,20 €	0,56	0,98


Oharra: Taula horretan ez da antzinasunetik kontuan hartu.

Irizpide hori ezartzeko xedez, lehentasunez erabiliko da aurtengo abenduko aparteko ordainsaria. Ondorio hauetarako, aparteko ordainsariari dagokion kopurua ezarriko zaio aplikatze aldiari dagokion guztizkoa murriztu arte. Kopuru hori kalkulatzeko, arestiko taulako murrizte-portzentajeak erabiliko dira, maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legeko 1.2 eta 1.3 artikulua ezartzearen ondoriozkoak kendu ondoren.

**LAUGARRENA.-** Aldi bateko langileei, konfiantzako karguei, enplegu-funtzionarioei eta langile parekatuei antzeko ordainsaria jasotzen duen enplegatu publikoari aplikatutako portzentaje bera murriztuko zaie beren ordainsarietan.

**BOSGARRENA.-** Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen





Akordioa (UDALHITZ) partzialki bertan behera uztea erabaki da 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioetarako. Ordiziako Udalak 2008ko abenduaren 18an egin zuen bat akordioarekin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, eta udaleko langileentzat alde zuzenetik aitortutako baldintzarik onenei utsiz, maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legea eta Erabaki hau eta, zehazki, eduki ekonomikoko neurriak zuzen aplikatzeko beharrezko terminoetan.

**SEIGARRENA.**- Indarrean dagoen araudiaren arabera, maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legean jasotako langile-kostuak murrizteko neurriak aplikatuz lortutako baliabideen xedea izango da Instituzioaren egoera ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera jarduteko neurriak hartzea.

**ZAZPIGARRENA.**- Alkateari ahalmena ematen zaio bere karguaren eskuduntzak gauzatzeko, beharrezko gertatzen diren neurriak har ditzan erabaki hau eraginkortasunez betetze aldera.

**ZORTZIGARRENA.**- Erabaki hau EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari helaraziko zaio.

.....n, 2010eko ekainaren .....(e)an.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jaunak

Proposamena uztaileko ohiko bilkuran onartzeko aurkeztu zutela azaldu du, eta mahai gainean gelditu ze, gaia ez baitzen Udaleko Udaltzako Jarraipen Batzordean aztertu.

Uztailaren 23an, ohiko bilkura egin zen egun berean, eta hura bukatu eta gero, zehaztutako Jarraipen Batzordea osatu zen eta aipatutako neurrien kontra azaldu ziren gizarte eragileak.

#### Kontu-hartzaile jaunak

Gobernuak ezarritako baldintzak ez dira guztiz betetzen, jaitziera ez baita lansarien %5ekoa, eta ez daki EUDEL-ek proposatutako neurriekin eta Udal batzuetan dagoeneko onartu dituztenekin, Madrilekoek ezarritako Araua betetzen den.


#### Gonzalez jaunak

Proposamenaren aurka dago, ez duelako ulertzen Gobernuak nola hautsi ditzakeen lehendik onartutako hitzarmen kolektiboak.

Langileak estutu aurretik beste neurri batzuk har daitezkeela uste du.

Gauzak dauden bezala uzteko "Konponketa bereziak" egitea ere eza zio gustatzen.

Gaia Auzitegi Gorenaren esku dago eta gaia atzeratzeko ausardia eskatu du, Auzitegiak epaia bidali arte.



### Asenjo jaunak

Gauzak egiteko moduak garrantzitsuak direla uste du. Konstituzioaren alde dagoen jendea dago eta ez dute Autonomia Erkidegoko Gobernuak kontuan hartzen eta EB/ARALAREk beste udaletan bezala aldeko jarrera eduki beharko lukeela uste du.

Udalaren autonomiarekiko errespetu falta iruditzen zaio eta inposaketa bat dela iruditzen zaio. Pasada bat iruditzen zaio.

Udalaren autonomia eskatzen du. Bere ustez udal guztien egoera ekonomikoa ez da berdina eta gaizki iruditzen zaio EUDEL-ek Udal guztientzako hitzarmen bera proposatzea.

Bere ustez funtzionarioek ez dute krisiarekin zer ikusirik eta hauen interesen aurka joatea ez zaio egokia iruditzen.

### Leunda jaunak

Erantzun dio esanez bere taldeko Alkateak dauden udalerrietan ez dela lansarien jaitsierarik onartu.

### Asenjo jaunak

Galdetu egin diola esan dio Leunda jaunari eta ez duela ezer ziurtatu.

### Irastorza jaunak

Langile Batzordekoak esan du neurria onartzen bada Udalhitz hausten dela eta datorren urtean beraiekin negoziatu beharko dutela hitzarmena.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak 5 (PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3)


Kontrako botoak: 2 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzioa: 2 (EA 2)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## **6.-2010eko maiatzaren 24ko osoko bilkuran onartutako Oiangurengo Kontzesioa berreskuratzeko hitzarmena indargabetzea.**

### Proposamena

Udaleko osoko bilkurak, ez-ohiko deialdian 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, ondorengo erabakia hartu zuen, bertan zehazten diren arrazoietan oinarrituta:

- 1.- 2005eko otsailean Ikengu 05 SLri esleitutako kontzesioa berreskuratzea egindako inbertsioengatik inongo kalte-ordainik eskatu gabe, 2008ko maiatzaren 30ean sinatutako Hitzarmenean zehaztu bezala.
- 2.- 120.000 euroko abala osorik egikaritzea, 2008ko maiatzaren 30ean sinatutako Hitzarmenaren b) ataleko Lehenengo Estipulazioan zehaztutakoaren arabera.
- 3.- Udal zerbitzuei parkean izandako kalte eta galeren balorazioa egiteko agintzea, esleipendun enpresari erreklamatu ahal izateko, Elkargiri exekutututako abalaren zenbatekoa gainditzen denean.


Hala ere, ELKARGI S.G..R. eta IKENGU 05 SLri erabakia berehala jakinarazi bazitzaien ere, aipatutako 1. puntua, hau da, kontzesioaren berreskurapenari buruzkoa, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretuko 256.2 artikuluan zehazten dena kontuan hartu gabe hartu zen. Errege dekretuan Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Testu bateratua onartzen da, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen Xedapen Indargabetzaile Bakarrak zehazten duenaren arabera gaur egun indarrean dagoena.

Ondorioz, espedientea ebatzi aurretik, hartzekodun hipotekarioari audientzia eman behar zaio, honek administrazio kontzesioaren betekizuna subrogatzea erabakitzen badu, eta horretara, karga edo eskubide horien titular guztiek entzunaldi-prozeduran parte hartzeko eskubidea izango dute, Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 258 artikulua agintzen duena. Horrekin batera, Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 63 artikuluen arabera, Deuseztagarriak dira ordenamendu juridikoa hausten duten egintzak, agintea desbideratzen dutenak barne, eta lege beraren 105 artikuluen arabera, Herri-administrazioek edozein unetan errebokaditzakete kargak ezartzen dituzten edo inorenkalterako diren beren egintzak, beti ere, errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten jaregite edo salbuespena, edo berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez bada.

Kasu honetan, kontzesiodunak aurkeztutako bertan behera uzteko idatzia, Oianguren parkearen egoera txarra, eta 2010eko maiatzaren 24ko erabakian zehazten diren arrazoiak kontuan hartuta, kontzesioa berreskuratzeko eta ebazteko akordioa justifikatzen duten kausak daude, baina ezin da erabakirik hartu hartzekodun hipotekarioari eta karga edo eskubide horien titular guztiei audientzia eman gabe eta kontzesioaren betekizunean subrogazio aukerak aztertu gabe.

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 66 artikuluen arabera, Jarduna deuseztatzen duen edo deuseza dela adierazten duen organoak beti mantenduko ditu arau-hausterik izan ez balitz berdin jarraituko zuketena egintza eta izapideak

Baldintza hauek 2010eko maiatzaren 24ko osoko bilkurako akordioaren 2 eta 3 puntuetara aplikatu behar dira, beraz, udal zerbitzuei agindutako abalaren exekuzioa eta kalteen balorazioa egoera berean



mantentzen dira, kontzesioa uzten zuela adierazten zuen kontzesiodunaren idatzia jaso eta berehala zegoen bezala, parkearen egoera txarra ikusita eta kontzesiodunak kontzesioa bertan behera utzita zuela abalaren exekuziorako kausa aztertuta.

Hori ikusirik, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROPOSAMENA:

- 1.- 2010eko maiatzaren 24ko osoko bilkurako akordioaren 1) puntua baliogabetzea, bertan Ikengu 05 SLri 2005eko otsailean esleitutako kontzesioa berreskuratzeko erabakia hartzen zen, eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen testu Bateratuko 256.2 artikuluan eta AAJAPE Legearen 84. artikuluan zehaztutako audientziarako tramitearen aurreko jardunekin atzera egitea, erabakia hartu aurreko izaerarekin, eta kasu honetan berreskuratzeko akordioaren eta kontzesioaren ebazpenaren aurretik.
- 2.-Tolosako Jabetza Erregistroan jabetza publikoko lursailaren, administrazio kontzesioaren eta ondorengo izen-emateen titulartasunen eta kargen egiaztatzea.
- 3.- Aipatutako erregistro ziurtagiria jaso ondoren, kontzesioan eskubideak eta kargak dituzten titularrei audientzia eman, hori betetzea subrogatzeko edo dituzten eskubide edo kargen inguruan dagokiena adierazteko.
- 4.- Parkean egindako kalteen balorazioari eta abalaren exekuzioari buruz 2010eko maiatzaren 24ko osoko bilkurako akordioaren 2 eta 3 puntuak dauden bezala uztea.
- 5.- Erabaki honen berri ematea IKENGU 05 SL, ELKARGI SGR enpresei, jakinaren gainean egon daitezen, aipatutako erregistro egiaztapena jaso ondoren audientziarako tramitea egongo dela jakinaraziz, edozein unetan espedientearen egoteko eta legez dagozkien alegazioak ipintzeko eskubideari kalterik egin gabe.

#### Alkate jaunak

Osoko bilkuraren gai zerrendan zergatik sartu duen azaldu du. Egituran konpondu beharreko akats bat dago.

Lehendabizi proposamena eguneko gai zerrendan sartu behar den bozkatuko da.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Absolutoa.


#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2,PSE-EE (PSOE) 3,EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



## Idazkari andreak

2010eko maiatzean onartutako berreskuratzea indargabetu behar dela jakinarazi du .

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2,PSE-EE (PSOE) 3,EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **8.- Galde eskeak**


- Mikel Leunda jaunak Gaztedia saileko delegazio bat kontsultatu edo irakurri du, eta bertan argi ikusten da koordinatzaile lanena azaltzen ez bada ere, gazte informatzailea Gaztediarekin lotutako funtzioak egin dituela.

- Horrekin batera, azaldu du, Maiza andrea ordezeko Alkate zegoenean Pakistanen uholdeak izan zirela eta Nazioarteko Kooperaziora bideratutako diru-partida bat eskatu zela. Txosten edo memoria bat aurkezteko eskatu zitzaion eta beste kasuetan ikusi du ez dutela inongo txostenik eskatu. Idatzia eta txostena prestatu dituela adierazi du eta gaur bertan sarrera emango diola erregistroan, eta bere eskaerari erantzunen bat ematea espero duela.

2008ko Kooperaziorako laguntzei errebaso bat egin diela azaldu du eta 33.000€-ko soberakina geratu zela azaldu du eta 2009tik datozela, eta 2010eko aurrekontuan dauden 76.000€ kontuan hartuta 109.000€ daudela horretarako. 33.000€ak egon beharko liratekeela uste du, baina adierazi du ez dituela inon ikusten.

Alkate jaunak azaldu du Pakistango laguntza eskaeraren berri lehen aldiz aurreko asteazkenean izan zuela, herenegun, Gai Arrunten Batzordean.

Larrialdietarako laguntzak adosteko konpromiso bat hartu zela esan du eta hori egin zela Tibeterako laguntza bideratu zenean, eta Leunda jaunari erantzun dio tramite bera jarraituko dela.



## Maiza Andreak

Leunda jaunari jakinarazi dio, ordezeko Alkate zegoela abuztuan deitu ziola Leunda jaunak, baina orduan ezin izan zuela ezer egin, jende gehiena oporretan zegoelako Gero Euskal Jaiak izan dira eta dakien bezala Udala ez da lanean hasten, praktokiko behintzat, irailaren erdira arte.

Gainera, berak ez du hori onartzeko eskumenik.

- Gonzalez jaunak eskatu du "Oiangu Bizirik"ek ordaindu behar dituen epaiketa gastuak barkatzeko, guztira 2.045,37 €. Tokiko Gobernu Batzordeko erabakia gogorarazi du, bertan zorra ez barkatzeko erabakia hartu zen. Erabakiaren zergatiak azaltzeko eskatu du.

Eskuzabaltasunagatik, "Oiangu Bizirik" elkarteak duen ordezkarizagatik, eta sortutako mobilizazioagatik epaieketaren gastua barkatu beharko litzakeela uste du, eta hori egiten ez bada, giroa gehiago nahastuko dela uste du. Gauza asko gertatu da eta Udalak pausu hori eman beharko lukeela uste du, gatazkari irtenbide bat emateko. Gaiaren inguruko mozio bat aurkeztuko duela aurreratu du, hurrengo osoko bilkuran eztabaidatu ahal izateko.

- Leunda jaunak jakinarazi du aspaldi Gobernu Batzordera joateko eskaria egin zutela, bozka eskubiderik gabe, eta hori onartzen ez badute ere, Gobernu batzordean aztertutako gaiari buruzko informazioa nahi dutela gutxienez.

Idazkari andreak azaldu dio Gobernu Batzordea osatzen dutenek osatzen dutela eta aktak bere horretan jasotzen dituela. Gaiak gehiago azaldu ditzakeela adierazi du baina horrek honako lanak emango lizkioke: bilera bakoitza bukatzean, Batzordeko aktaz gain, joaten ez direnentzako txosten bat egitea, eztabaidatzen den puntuarekin lotutako aurrekari guztiak azalduz. Akata guztiekin gauza bera egingo balu lanegun oso bat beharko luke eta ez du hainbeste denborarik.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.